

SGAE fundazioaren nazioarteko ikasketak luzatzeko bekak 2017/2018 ikastaroa

SGAE Fundazioak beken programa hau aurkezten du
2017/2018 ikasturterako, atzerrian ikasketak osatzeko:

- Antzerki-sorkuntza ikasketak atzerrian egiteko bekak.**
- Koreografia-sorkuntza ikasketak atzerrian egiteko bekak.**
- Gidoi-idazketa ikasketak atzerrian egiteko bekak.**
- Ikus-entzunezko zuzendaritza ikasketak atzerrian egiteko bekak.**
- Herri-musika sorkuntza ikasketak atzerrian egiteko bekak.**
- Egungo musika klasikoko sorkuntza ikasketak atzerrian egiteko bekak.**

Aipatutako 6 beka-programetarako zenbateko hau esleitu da:

- Beka osoa, gehienez 11.000 eurokoa, ikasturte oso baterako. Hautatutako eskatzaileak honako hauetarako erabili beharko du zenbatekoa: matrikularako, egonaldirako, joan-etorrietarako, mantenurako.
- Eta gutxienez 6 beka partzial (beka-proiektu bakoitzari esleitutako aurrekontuko partidaren arabera hel daitekeen gehieneko kopururaino). Horietako bakoitza gehienez 1.200 eurokoa izango da, eta hauetarako erabili beharko da: iraupen mugatua duten ikastaroetan, mintegietan, master class-etan, tailerretan eta antzekoetan parte hartzeko.

Deialdiaren oinarriak

Lehenengoa: eskatzaileak

- Eskatzaileak SGAEko autore bazkideak izan beharko dira eta formazioan erabiliko den hizkuntzaren jabe direla frogatu beharko dute.
- Eskatzaileak ezingo dira deialdi honetan aipatzen den beka-programa baterako baino gehiagorako hautatu, eta, beka-programaren barruan, ezingo dira beka mota baterako baino gehiagorako hautatu.

Bigarrenen: formazio-proiektuen tipologia eta bekaren zenbatekoa

1. Deialdi hau arte-kreazioaren honako eremu hauetara mugatzen da:
 - Antzerki-sorkuntza: idazketa.
 - Koreografia-sorkuntza: koreografia.
 - Ikus-entzunezko sorkuntza: gidoi-idazketa eta ikus-entzunezko zuzendaritza.
 - Musika-sorkuntza: herri-musika eta egungo musika klasikoa.
2. Sorkuntza-eremu bakoitzean bi eskaera mota daude, beka osoa eta, besteak beste ikastaroetara eta mintegietara joateko bekak. Edozein kasutan, beka-eskaeraren ikasketa-programa **2017ko ekainaren 1etik aurrera hasi beharko da eta gehienez 2018ko abenduaren 31n bukatu.**
3. Eskatutako formazioa eskatzailea bizi den herrialdetik kanpo egin beharko da.
4. Eskatutako zenbatekoaren kalkulurako kontuan hartuko dira ikastaroaren matrikularen eta joan-etorrien gastuak; eta beka osoa ematen bada, kontuan hartu ahalko dira mantenurako eta ostaturako gastuak.

Hirugarrena: dokumentazioa eta eskaerak aurkezteko epea

1. Eskaerekin batera honako agiri hauek egon beharko dira:
 - Eskabide-orria.
 - Nortasun agiriaren kopia.
 - Curriculum vitae.
 - Eskatuko diren ikasketei buruzko agiriak.
 - Eskatzailearen gutuna azaltzeko formazioaren bidez zer helburu artistiko lortu nahi den.
 - Frogatu beharko da onarpena aukeratu den nazioartean izen handikoa den atzerriko ikasketa zentroan.
 - Gastuen aurrekontua.
 - Ikastaroan erabiliko den hizkuntza-maila egiaztapena.
 - Eskatzaileak SGAE Fundazioa espresuki baimentzea haren datu pertsonalak erabili ahal izateko, deialdi hau kudeatzeko.

2. Eskaerak 2017ko maiatzaren 25eko 24:00ak arte aurkeztu ahalko dira. Eskaera hauek ez dira kontuan hartuko: epe horretatik kanpo jasotakoak, modu telematikoan aurkezten EZ direnak edo 1. puntuan eskatutako agiri guztiekin batera ez datozenak.

Laugarrena: hautaketaren irizpideak

Eskaerak ebaluatzeko honako irizpide hauek izango dira kontuan:

- Eskatutako baldintzak betetzea.
- Formazio-proiektuaren interesa.
- Eskatzailearen meritu akademiko eta artistikoak.
- Xede-herrialdearen hizkuntza-ezagutza maila.
- Prestakuntza ematen duen erakundearen prestigioa.

Beka jasotzeko moduko proiektuen artean hautatu behar denean, lehentasuna emango zaie aurretik SGAE Fundazioaren laguntzarik edo bekarik jaso ez duten bazkideei.

Gainera, positiboki baloratuko dira SGAE Fundazioaren Plan Zuzentzailearekin bat egiten duten irizpideak. Aipatutako Plana SGAE Fundazioaren web-orrian dago argitaratuta eta nahierara kontsultatu daiteke.

Bosgarrena: eskaeren prozedura eta hautaketa

1. SGAE Fundazioaren Patronatuko kidez (beste batzuen artean) osatutako ebaluazio-batzordea arduratuko da arauetan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eskaerak aztertzeaz eta ebaluatzeaz.
2. Batzordeak laguntzak emango dituen erabakiko du eta erabakia interesdunei idatziz jakinaraziko die.
3. Batzordearen erabakia apelaezina izango da.
4. Batzordearen erabakia baiezkua bada, emandako dokumentazioa alderdien artean izenpetuko den hitzarmenaren parte izango da eta ezin izango da banatu. Ez da itzuliko hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

5. Batzordearen erabakia ezezkoa bada, eskatzaileak onartzen du SGAE Fundazioak eskaeraren dokumentazioaren fitxategi digitalak ezabatzea, erabakia jakinarazi eta gero.

Seigarrena: elkarlanaren formalizazioa

SGAE Fundazioak eta beka onartu zaion eskatzaileak elkarlanerako hitzarmen bat izenpetuko dute. Hitzarmen horrek, halaber, dokumentu honetan jarritako oinarriak bete beharko ditu, baita jarraian zerrendaratuko dugun informazio hau ere, murriztailea ez dena:

- Alderdien eskubideak eta betebeharrak.
- Bekadun formazioaren hasieraren eta amaieraren epea.
- Emandako bekaren zenbatekoa.
- Ordaintzeko modua.
- Formazioaren jarraipena (txostena, ebaluazioa eta amaierako memoria).

Zazpigarrena: konfidentzialtasun-betekizuna eta datu pertsonalak babestea

Eskatzaileek SGAE Fundazioari beka eskatzeko eta, hautatzen badituzte, kudeatzeko ematen dioten informazioa konfidentziala da.

Eskaera aurkeztearekin batera parte-hartzaileek SGAE Fundazioa espresuki baimentzen dute haien izen-abizenak argitaratzeko hautatuen ebazpenean; ebazpena SGAE Fundazioaren web-orrian argitaratuko da.

Eskatzaileek borondatez ematen dituzten datu pertsonalak SGAE Fundazioaren ardurapeko fitxategi batean gordeko dira, eta hori Datuak Babesteko Erregistro Nagusiari jakinaraziko zaio. Datu pertsonalen babeserako oinarrizko eskubidearen titularrak sartzeko, zuzentzeko, ezerezteko eta aurka egiteko eskubideak ditu. Horiek erabiltzeko helbide honetara idatz dezake: SGAE Fundazioa, Zuzendari nagusiaren arreta, Bárbara de Braganza kalea 7, 28004 Madril. SGAE Fundazioak interesdunak emandako datuak egiazkotzat joko ditu eta usteko du haren egungo egoerarekin bat datozela. Interesduna behartuta dago aldagetak jakinaraztera, horiek gertatzen diren mementotik aurrera.

Zortzigarrena: arau orokorrak

1. Beka jaso duen eskatzaileak egiten dizkioten elkarrizketa publikoetan aipatu beharko du formaziorako bekarekin izan duen SGAE Fundazioaren eta SGAEren laguntza eta kolaborazioa, elkarrizketek formazio horrekin zerikusia badute.
2. Eskaera egiteak esan nahi du eskatzaileak dokumentu honetan ezarritako baldintzak eta oinarriak espresuki onartzen dituela eta baimena ematen diola SGAE Fundazioari, emandako laguntza Memorietan eta gainontzeko argitalpenetan zabaltzeko.
3. Eskatzaileak indarrean dagoen legea hausten badu, bekaren egite, garapen eta beka eman den formazioari dagokionez, arduratik salbuesten du SGAE Fundazioa.
4. SGAE Fundazioak, proiektuari jarraiki, ez du hartzen ardura zuzenik ezta ordezkatzailerik bekari eta beka eman den formazioari dagokionez. Beka eman den ziorako erabiltzen ez den kasuetan.
5. Dokumentu honi ezartzen zaion legeria Espainiakoa da eta alderdiek egokitu ahal zaien foruari uko egin eta Madrilgo Auzitegien jurisdikziopean egotea onartzen dute.

Informazio gehiago:

informacion@fundacionsgae.org